

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Lehendakaritzaren 2024ko 132. Ebazpena. Zaborretako langilea lan-kontratuko langile finko izendatzea

Lehendakaritzaren 2024ko urriaren 23ko 132 zenbakiko Ebazpenaren bidez, lan-kontratuko langile finko izendatu da zabor-langilea:

Óscar Díez Maestro, Añanako Kuadrillako lan-kontratu finkoko langile gisa, zabor-langilearen lanpostuan, eta lanpostu horri atxikitzea, C2/AP taldea.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

Hori guztia argitara ematen da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 63. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Aukerako berraztertze errekurtso hori jarri ezean, zabalik geratuko da bide judiziala; beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Ribabellosa, 2024ko urriaren 28a

Lehendakaria

RUBÉNTORREMOCHA GALÁN